

## SEGMENTAZIOA

Atal honek gure bezeroak identifikatzeko eta finkatzeko balio du. Bezeroak gure zerbitzuaren zati garrantzitsu eta oinarritzokoak dira, izan ere, gure zerbitzuaz gozatu eta aurrera eramaten laguntzen dutenak dira. Beraiei dagokie gure zerbitzua gustuko den ala ez erabakitzea.

Herri txiki batean ezarriko denez, muga errealista bat jartzea komeni zaigu, horregatik adin-tarte zehatz bati zuzenduko zaio, batez ere. Gimnasia joaten diren pertsonen adinak aztertuz, 15 urtetik gorako pertsonak egokienak direlaren ondorioz iritsi gara, gehien joaten direnak eta beraien gorputza gehien lantzen dutenak direlako. Eta edozein motako lesioak dituzten pertsonak ere onartuko ditugu, hain zuzen ere, bertako monitore baten laguntzaz lesioa hobetu ahal izateko.



Gure gimnasioan hiru motatako bezeroak egongo direla ondorioztatu dugu: jubilatuak, goizetan joaten direnak. Hauek ere izugarriko energia ekoizten dutelako bizikletekin, zintekin, eliptikekin... Eta normalean ikusi dezakegu arratsaldetan gazte jendea joaten dela, goizetan ikasi edo lana egin behar dutelako. , Hauek, indarra lantzeko eta baita kardioa lantzeko balio duten makinak erabiltzen dituzte, eta honek energia gehiago sortzeak dakar.

Gimnasioan ikusten ditugun bezeroen itxura fisiko eta erresistentzia kontuan izanik, bertako bezeroen maila ez dira errendimendu txikiko (mantenimendua eta zaintzen ez diren pertsonak) edo errendimendu handiko (triatlon, kulturismoa eta gehiegi zaintzen diren pertsonak) bezeroak izango. Ikusten ditugun bezero egokienak errendimendu ertainekoak dira, hau da, beren gorputza landu eta mugarik gabe sasoiak mantendu nahi dutenak.



Saskibaloiko taldeetan edo beste kirol bateko taldeko parte diren kirolari gazteak ere etor daitezke gure gimnasia kirola egitera, indarra lantzeko eta beraien lesioetako errehabilitazioak egitera, behar bada. Horrela, herriari laguntzeko aukera izango dute eta kirola eginez gehiago entrenatzeko aukera izango dute energia sortuz.

Gure bezeroak ikertu ondoren, gure merkatua masiboa dela ondorioztatu dugu. Kanalak, baliozko proposamenak eta beste elementuak aztertzean, gure zerbitzuaren bezeroak nahi eta helburu bera duten talde handi batekoak dira, kasu honetan energia ekoitzi eta bakoitzaren helburu fisiko zein mentalak lortu.

